



Elorrioko udala

LANKIDETZA HITZARMENA

ELORRIKO UDALAREN ETA “OINHERRI HERRI HEZITZAILEAK SUSTATZEKO ELKARTEA”REN ALDE ELORRIKO UDALEKO AURREKONTUAN AURREIKUSITAKO DIRULAGUNTZA IZENDUNA ARAUTZEKO

Elorrioko udaletxean, bi mila eta hogeita hiruko **otsailaren 14an** bildu dira:

Alde batetik, **Idoia Buruaga Bárcena andrea, (15392277X NAN)**, Elorrioko alkatea, Elorrioko Udalaren izen eta ordezkapenean.

Bestetik, Oinherri, Herri Hezitzaileak Sustatzeko Elkartearen (IFK: G75237701) izenean, Amaia Etxabe Goikoetxea andrea (44341768E NAN) presidentea eta ordezkaria dena, Eusko Jaurlaritzaren Gobernantza Publiko eta Autogobernu Sailaren egiaztagiraren arabera.

Bi alderdiek hitzarmen hau sinatzeko nahikoa gaitasun aitortzen diote elkarri eta honako hau

ADIERAZI DUTE

1.- Apirilaren 2ko 7/1985 Legearen, Toki Araubideari buruzko Oinarriak arautzeari buruzkoaren, 25. artikulua toki intereseko jarduerak sustatu nahiz suspertzeko funtzioak ahalbidetzen ditu.

Laguntza ekonomikoak eta dirulaguntzak toki administrazioak baliatu ditzakeen sustatzeko jardueraren barnean daude interes publikoko ekintzak sustatu eta babesteko helburuarekin, tokiko auzo-komunitatearen behar edo interesak asebetetzen lagunduko dutenak. Azken batean, neurri ekonomiko



Elorrioko udala

bat da eta, haren bidez, toki komunitateko herritarrek beraiek, banaka edo elkartuta, lortu nahi diren taldeko xede egokiak betetzen lagunduko dute modu aske batean, eta aztertzen den jarduera egiteko behar besteko baliabideak ez dituztenak.

Sektore publikoko finantza-jardueraren zati hori Diru-laguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorrak arautzen du, eta baita uztailaren 21eko 887/2006 Errege Dekretuak ere, lege horren araudia onartzen duena.

Legearen 22.2 artikulua ezartzen duenez, dagokion toki erakundeko aurrekontuetan aurreikusitako dirulaguntza izendunak zuzenean eman ahalko dira, dirulaguntza arautzen duen hitzarmenean jasotako baldintzetan eta dirulaguntzak arautzen dituen araudian jasotako baldintzetan.

Eta legearen 28. artikulua dioenez, dirulaguntzak zuzenean emateko prozedurari dagokionez, dirulaguntza hori bideratzen duten emakida nahiz hitzarmenen ebazpenak finkatuko ditu aplikagarriak diren baldintza nahiz konpromisoak legean xedatutakoa betez; hala, hitzarmenak izango dira toki korporazioek aurreikusitako dirulaguntza izendunak bideratzeko ohiko tresnak.

Horri buruz, uztailaren 21eko 887/2006 Errege Dekretuaren 65. artikulua ezartzen duenez, aurrekontuetan aurreikusitako dirulaguntza izendunak honako hauek dira: helburua, aurrekontuko zuzkidura eta onuraduna aurrekontuaren gastu-egoera berariaz zehaztuta dituzten dirulaguntzak. Gainera, dirulaguntza horiek emateko prozedura ofizios hasiko du dirulaguntza egozten zaion Aurrekontuko Kredituaren Zentro Kudeatzaileak edo interesdunak eskatuta; emakida edo hitzarmenaren ebazpenarekin amaituko da, eta kasu horietako edozeinetan ere dirulaguntza arautzeko oinarri-izaera izanik.



Elorrioko udala

2.- 2016an sortua den Oinherri herri hezitzaileak sustatzeko Elkartearen estatutu-helburua da zazpi kontzeptutan garatzen den aisia-eredu berritzailea garatzea. Zazpi eremu horiek elkarrekin lotzen, garatzen eta aberasten dira, eta, proposamen koherente eta oso bat egin ahal izateko, zazpiek halabeharrez elkarrekin joan behar dute. Eta horrela formulatu ditugu gure lan-eremu eta xedean:

Jolasa eta sormena ikasteko eta garatzeko berriazko tresnatzat dituen haurren kultura aitortzea; hori oinarri hartuta, haurrei euren komunitatea eta herria hobetzeko proiektu eta ekimenetan benetan parte hartzeko eta erabakitzeko ahalmena ematea; eurek eraikitako aisia hezitzaile eta euskaldunaren bitartez, aniztasunean berdin eta parekide izanez eta ingurumen naturala eta kulturala zainduz, komunitate-sarea eta auzolana indartzea, eta pertsonen arteko harreman osasuntsu, justu eta asegarriak jostea. (Elkartearen Estatutuak, 2017-03-08).

3.- Elorrioko Udalak bere udalerria balioen eremu hezitzaile moduan sustatu nahi du; izan ere, ulertzen du hezkuntza, familiarik eta eskolatik harago luzatzen dela eta ez dela haurtzaroan hasi eta haurtzaroan bukatzen den prozesua. Horregatik, Udala bera hezkuntza eragilea dela, herriko ikastetxe, hezkuntza ez formaleko eragile eta herrigintzako elkarteekin batera. Ondorioz, Elorrioko herria eremu hezitzaile moduan garatzen hasteko, elkarlan horizontalak eraikitzeko espazioak eraikitzeko beharrean aurkitzen da.

Bai, Elorrioko Udalak eta bai, "Oinherri herri hezitzaileak sustatzeko Elkartearen" elkarteak hartutako bidean elkarrekin jarraitzeko erabakia hartu dute eta lankidetzan arituko dira ordezkatzan dituzten onura orokorreko eremuetan.



Elorrioko udala

4.- Orain arte esandakoak kontuan hartuta, Elorrioko Udalak 2023ko aurrekontuetan sartutako Dirulaguntzen Plan Estrategikoan jaso du Oinherri herri hezitzaileak sustatzeko Elkarteari dirulaguntza zuzena, hitzarmen bidez, emotea.

5.- Hitzarmen honen helburua da, alde batetik Elorrioko Udalaren 2023ko aurrekontuetan ageri den Oinherri herri hezitzaileak sustatzeko Elkartearen aldeko aurrekontu-aplikazio izendunari dagokion dirulaguntza ordaintzea eta bestetik, erakunde onuradunak bere gain hartzen dituen betebeharrak eta konpromisoak finkatzea.

Beraz, Dirulaguntzen Lege Orokorrean, Dirulaguntzen Ordenantza Orokorrean eta aplikagarria den gainerako araudian ezarritakoa betez, bi aldeek hitzarmen hau izenpetzeko erabakia hartu dute, eta hura honako hauek aginduko dute:

KLAUSULAK

LEHENA.- DIRULAGUNTZAREN XEDEA

Hitzarmen honen xedea ELORRIOKO UDALAREN eta "Oinherri herri hezitzaileak sustatzeko Elkartea" ren arteko lankidetzarako jarduketaren eremua ezartzea da.

BIGARRENA.- ERAKUNDE ONURADUNA

Erakunde onuraduna "OINHERRI HERRI HEZITZAILEAK SUSTATZEKO ELKARTEA" da, IFZ G-75237701. Erakundeak emandako dokumentazioaren arabera, hark Dirulaguntzen Lege Orokorren 13. artikuluan ezarritako onuradun izaera eskuratzeko baldintzak betetzen ditu. Zerga guztiak eta



Elorrioko udala

Gizarte-Segurantzara ordainduta dituela egiaztatzen du, eta ez dagoela araudian ezarritako debekuren baten barnean onuradun izaera eskuratzeko.

HIRUGARRENA.- AURREKONTUAREN ZENBATEKOA ETA KREDITUA

Dirulaguntzaren zenbatekoa hiru mila eurokoa (3.000,00 €) izango da.

“OINHERRI HERRI HEZITZAILEAK SUSTATZEKO ELKARTEA”ri 2023ko 3200 481 36 aurrekontu-aplikazioan (Hezkuntza) aurreikusitako dirulaguntza zuzena-hitzarmena emongo zaio (2022eko azaroaren 25eko Osoko Bilkurak, hasieraz, onartua, behin betiko abenduaren 26an).

2023an zehar Elorrioko Udalarekin batera zenbait ekintza eramango ditu aurrera ondorengo aurrekontuarekin:

| | |
|--|------------|
| Profesional independenteak | 2.500,00 € |
| - Abiatze fasea | |
| - Diagnostosi fasea | |
| - Abiapuntuaren definizioa eta ekintzen diseinua | |
| - Balorazio jarraia | |
| Mugikortasun gastua | 500,00 € |

LAUGARRENA.- JARRAIPEN-BATZORDEA

Hitzarmenean ezarritakoa beteko dela ziurtatzeko, eta koordinazio-lana egiteko, hitzarmen honen jarraipen-batzorde bat eratuko da.

Jarraipen-batzordeko kideak hauek izango dira:

- Oinherri herri hezitzaileak sustatzeko elkartetik: Oinherri elkarteko langilea.
- Elorrioko Udalaren aldetik, Alkateak izendatutako ordezkaria.



Elorrioko udala

Jarraipen-batzordea urtean behin bilduko da gutxienez, eta bilera horiek azalpen-izaera izango dute. Batzordeak zeregin hauek izango ditu:

- Gauzatu beharreko jardueren urteko azterketa eta horien egutegia finkatzea.
- Hitzarmen hau garatzeko koordinazioa eta jarraipena egitea.

BOSGARRENA.- ARAUBIDE JURIDIKOA

Dirulaguntzaren emakida arautzen duen araubide juridikoa honako hau da:

- 38/2003 Lege Orokorra, azaroaren 17koa, Dirulaguntzei buruzkoa.
- 887/2006 Errege Dekretua, uztailaren 21ekoa, lege horren araudia onartzen duena
- Elorrioko Udalbatzak 2010eko otsailaren 11n onartutako dirulaguntzak arautzeko udal ordenantza.
- Hitzarmena bera.

SEIGARRENA.- BATERAGARRITASUNA

Dirulaguntza hau xede bera duten beste dirulaguntza, laguntza, diru-sarrera edo baliabideekin bateragarria izango da, edozein administrazio edo erakunde publiko edo pribatuk, estatukoak, Europar Batasunekoak eta nazioarteko erakundeek emandakoak; nolnahi ere, dirulaguntza edo laguntza horiek arautzen dituen araudiak ezarri dezakeena bete ahalko da. Hala ere, emandako dirulaguntzak ezingo du, inolaz ere, guztira diruz lagundutako jardueraren kostua gainditu, bakarka edo beste dirulaguntza, laguntza, diru-sarrera edo baliabideekin lehian.

ZAZPIGARRENA.- EGIKARITZEKO EPEA ETA INDARRALDIA



Elorrioko udala

Diruz lagundutako jarduera egiteko epea 2023ko abenduaren 31n amaituko da.

Egin den planteamendua 4 urterako da (hitzarmena urtez urte luzatuko litzateke) eta dirulaguntzen egitasmo estrategikoaren barruan proposatzen da, ondoren Oinherrekin egingo den urteroko hitzarmen baten bitartez eratuko den aurrekontu-aplikazio batean. Horrela, urtero jasotako laguntza likidatu eta justifikatuko litzateke, eta Udalaren aurrean justifikatu gabe gelditu dena itzuli egingo litzateke.

Jarduerak haurtzaroaren kultura, parte-hartzea, euskara, aniztasuna, parekidetasuna, natur eta kultur ondarea, eta komunitategintzaren inguruan antolatzen dira, herri hezitzaileen giltzarri nagusiak direnak.

Jarduera berriak edo aldaketak egon daitezke egitarauan, bi alderdiek horrela adosten badute dirulaguntzaren zenbatekoan eraginik ez badu.

ZORTZIGARRENA.- DIRULAGUNTZAREN EPEA ETA ORDAINTZEKO ERA

Dirulaguntza emateko erabakia hartuta, dirulaguntza hura dena batera eta justifikatu aurretik ordainduko da, erakunde onuradunak zer elkartze-izaera eta baliabide ekonomiko urriak dituen ikusirik; hala, ez da beharrezkoa izango inolako bermerik ematea, hitzarmen honen arabera onartutako betebeharrak ez betetzeko arriskurik ez baita ikusten.

BEDERATZIGARRENA.- JASOTAKO DIRULAGUNTZA JUSTIFIKATZEKO EPEA ETA MODUA



Elorrioko udala

1.- Hitzarmen honek jasotzen duen dirulaguntzaren helburua bete izanaren justifikazioa aurkeztu beharko du elkarte onuradunak ekintza burutzeko ekitaldia amaitu eta hilabetera, azken eguna 2023ko abenduaren, 15a izanik.

2.- Justifikazioa egiteko honako agiri hauek aurkeztu beharko ditu elkarte onuradunak:

- Diruz lagundutako jarduerari buruzko memoria.
- Balantze ekonomikoa: Elorriko burutu diren jardueraren gastuen eta diru-sarreraren balantze zehatza. Justifikatu beharrekoa, dirulaguntza jaso duen urtean onuradunak egitasmorako aurreikusitako zenbateko osoa izango da.
- Gastuen zerrenda atalka, ondorengo datuak jasoko dituen: hornitzailea zein den, kontzeptua, kopurua, fakturaren data eta hala badagokio, ordainketa data.
- Zerrenda honetaz gain, fakturen fotokopiak ere aurkeztu beharko dira.
- Dirulaguntza jasotako egitasmoa dela eta, argitaratutako liburuxka, kartel, liburu eta abarren ale bana.

3.- Diruz lagundutako jarduera finantzatu duten beste diru-sarrera edo dirulaguntzen zerrenda zehatza, eta haien zenbatekoa nahiz jatorria adieraziko dira.

HAMARGARRENA.- DIRUZ LAGUNDU DAITEZKEEN GASTUAK

Diruz lagundu daitezkeen gastuak honako hauek dira: zalantzarik barik beharrezkoak direnak diruz lagundutako jarduera behar bezala egiteko, eta hitzarmen honetan araututako dirulaguntzaren xedea betetzen uzten dutenak.



Elorrioko udala

Dirulaguntzei buruzko Lege Orokorraren 31.3 artikuluan ezarritakoa betez, erakunde onuradunak hornitzaile ezberdinei hiru eskaintza gutxienez eskatu beharko diete, konpromisoa hartu aurretik.

Aurkeztutako eskaintzen arteko aukeraketa, justifikazioan edo, hala badagokio, dirulaguntzaren eskaeran eman beharko direnak, eraginkortasuneko irizpide eta irizpide ekonomikoen arabera egingo da; hala, hautaketa berariaz memoria batean justifikatu beharko da proposamen ekonomiko onuragarriena aukeratzen ez denean.

Dirulaguntzei buruzko Lege Orokorraren 31.8 artikuluekin bat etorritz, zeharkako zergak diruz lagundu daitezkeen gastuak joko dira berreskuratu edo konpentsatu ezin direnean.

HAMAIKAGARRENA.- ERAKUNDE ONURADUNAREN ETA UDALAREN BETEBEHARRAK

1. Erakunde onuradunaren betebeharrak dira:

- a) Dirulaguntza jaso duen jarduera egitea.
- b) Organo emailearen aurrean justifikatzea, hala badagokio, betekizun eta baldintzen betearazpena, bai eta jarduera eginda dagoela eta dirulaguntzaren emakidak edo hura baliatzeak zehaztutako helburuaren betearazpena ere.
- c) Organo emaileak edo erakunde laguntzaileak, hala badagokio, egin beharreko egiaztatze-jarduerak burutzea, bai eta beste kontrol-organo eskudunek egin ditzaketen egiaztapen eta finantza-kontrolako beste



Elorrioko udala

edozein ere (estatukoak nahiz erkidegokoak), aurreko jarduerak egikaritzean eskatutako behar besteko informazioa emanez.

- d) Diruz lagundutako jarduerak finantzatzen dituzten beste dirulaguntza, laguntza, diru-sarrera edo baliabideak eskuratu izanaren barri emotea organo emoileari.
- e) Jakinarazpen hori jakin bezain laster egin beharko da eta, nolana ere, jasotako funtsei emondako aplikazioko justifikazioaren aurretik.
- f) Jasotako funtsen aplikazioaren frogagiriak gordetzea, dokumentu elektronikoak barne, egiaztatze eta kontroleko jardueren xede diren artean.
- g) Oinherri herri hezitzaileak sustatzeko elkarteak, Euskal Herri mailako herri hezitzaileen sarearen jakintza kolektiboa eta esperientziak elkarbanatzeko konpromisoa hartzen du.
- h) Herritarrei eta toki-administrazioari herri, eskualde eta Euskal Herri mailako hainbat ekimenetan aktiboki parte hartzeko aukera emango zaio: hausnarketak, esperientzia trukaketak eta bestelako proiektuak.
- i) Elorri herri hezitzailea ekimenarekin lotutako jardueri dagokienez, Oinherri elkarteak, bere eskarmentu eta ezagutzari esker, Elorrioko Udalari gaiaren inguruko aholkularitza bermatzeko konpromisoa hartzen du.
- j) Oinherri elkarteak Elorrioko hezkuntza formal zein ez formaleko eta herrigintzako eragileekin elkarlanean aritzeko konpromisoa hartzen du.



Elorrioko udala

k) Oinherri elkarteak gertutasuna bermatzeko konpromisoa hartzen du; herri hezitzailearen ekimena tokian tokiko berezitasunetara egokituz.

2. Elorrioko Udalaren betebeharrak dira:

- Elorrioko Udalak erraztasunak emango ditu, herriko hezkuntza-eragileekin eta herrigintzako elkarteekin elkarlanean, herri hezitzailearen ekimenari forma emateko talde eragile bat eratzeke.
- Elorrioko Udalak aipatutako jarduerak bere komunikabideen bidez ezagutzera emateko konpromisoa hartzen du.

HAMABIGARRENA.- EZ BETETZEA ETA ITZULKETAK

Erakunde onuraduna dirulaguntza guztiz edo zati bat itzultzerara behartuta egongo da 38/2003 Lege Orokorraren, Dirulaguntzei buruzkoaren, 37. artikuluan ezarritako kasuetan, itzultzeko prozedura izapidetu aurretik eta lege horren II. tituluko II. kapituluan ezarritako prozedurarekin bat etorritik eta garatzen dituzten bere araudiaren aginduetan ezarritako prozedurarekin bat etorritik.

HAMAHIRUGARRENA.- ARAU HAUSTEAK ETA ZEHAPENAK

Erakunde onuradunak dirulaguntzen arloan egin ditzakeen arau-hauste edo administrazioko zehapenei dagokienez, 38/2003 Lege Orokorraren, Dirulaguntzei buruzkoaren, IV. tituluan xedatutakoa beteko da.

HAMALAU GARRENA.- DEUSEZTATZEKO ARRAZOIAK

Hauetako dira hitzarmena bertan behera uzteko arrazoiak:



Elorrioko udala

- 1 Bi aldeetako batek, ekitaldiko urriaren 31 baino lehenago hala adierazten badu.
- 2 Hitzarmenean ezarritako baldintzak ez betetzea.

HAMABOSGARRENA.- LANKIDETZA-ARAUAK

Elorrioko Udala, diruz lagundutako elkartearen zuzendaritza eta administratziotik kanpo egongo da, eta hitzarmen hau betetzeko egindako jarduerak ez dute Udala lotuko; hortaz, era berean, Elorrioko Udala hitzarmen honetan jasotako ekintzetarako lagatzen duen materiala dela eta sor litezkeen erantzukizunetatik kanpo egongo da, horren kudeaketaren erantzukizun guztia Oinherri Herri Hezitzaileak Sustatzeko elkartearena izango delako.

HAMASEIGARRENA.- DATU-BABESA

Hitzarmenaren xedean adierazitakoaren arabera, lanak/zereginak/zerbitzuak egiteko, ez da beharrezkoa Elorrioko Udalarenak diren datu pertsonalak eskuratzea.

Horrela, debekatuta dago Elorrioko Udalarenak diren datu pertsonalak tratatzea, eskuratzea eta ikustea.

Datu pertsonalak nahi gabe eta baimenik gabe ikusiz gero, erakundeak konpromisoa hartzen du ezagutu dezakeen informazioa sekretupean eta isilpean gordetzeko eta arduraduna den erakundeko datuen babesaren ordezkariari gertatutakoa berehala jakinarazteko.

Horiek horrela, erakundeko langileak behartuta daude datuak hirugarren pertsonari ez ezagutaraztera, transferitzera, ematera edo jakinaraztera, eta



Elorriko udala

betebehar hori Elorriko Udalarekin duen harreman juridikoa amaitu ondoren ere mantenduko da.

Oro har, Elorriko Udalak ezarritako eta emandako informazioaren segurtasun neurriak eta jarraibideak bete beharko dira.

Eta hitzarmenean jasotako guztiarekin ados daudela adierazteko bi aldeek hitzarmenaren bi ale sinatu dituzte hasieran adierazitako lekuan eta egunean.

Elorriko Udalaren izenean

Oinherri Elkartearen izenean

Idoia Buruaga Bárcena

Alkatea

Amaia Etxabe Goikoetxea

Presidentea